

Antxiñako fotografixia

Gerra aurreko institutua



ñatiko unibersidadia izandako eraikuntza zaharrian behin baino gehixagotan egon da bigarren maillako institutua. XIX. mendian lehenengo, 1842tik 1850era eta 1869tik 1874ra; eta hurrengo XX.ian, 1928tik 1936ra eta 1963tik 1968ra. Aldamenian eguen ospitala bota eta ikastetxe barrixa jaso zanian, **R. M. Zuazola** institutua hara aldatu zan, hau da, gaur egungo egoitzara.

Hillabete honetako fotografixia gerra-aurtxoko aldixari dagokixo. Zortzi kurtso iraun eben garai haretan batxillerrak Oñatin. Eta kuriosua da, diktadura batek ekarririk beste batek eruan oskun: **Primo de Riveraren** denporan jarri zan institutu hori, 1928xan, orduan urten eben irakaskuntza-lege barri bat aprobetxauaz. Esaten danez, Madriden ebillen **Gomendiotar** baten bittartekotasuna inportantia izan ei zan II. Errepublikan be martxan egon zan ikastetxia gure herrixan ipintteko. Kendu, ostera, 1936ko udazkenaren lehenengo egunetan euen, gerria hasi eta handik bi hillabetera militar matxinatuak Oñatin sartu ziranian. Gerran alde batekuak nahiz bestekuak unibersidadia hainbat eginkizun zibil eta militarretarako erabilli ondoren, 1939xan maristak bueltatu ziran hamaika urte lehenago itxi euen kolegixora.

Zortzi urte horreitan gauza haundixa izan zan neska-mutil oñatiar batzuentzat herritik urten barik batxillerra egin ahal izatia. Kontuan izan probintzia osuan ez eguela Donostiako institutua baino. Eta egoeriak bardin jarraitetan eben 1963an, institutuak bere azken etapari ekin otzanean. 1930. urteko argazki honetan —unibersidade ostian eta agustiñotako atari aurrian— agerketan diran estudiante gehixenok txantxikuarrak dittugu, banaka batzuk beste herri batzuetakuak izan arren. Behetik gora eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue:

Beheko illaran jarritta: Pedro **Ibarbia**, eibartarra; Migel **Azpiazu**, Kale Barrikua; Migel **Gereka**, Kale Zaharrekua; Rikardo **Elorza**, Moiuia kalekua [Lope Agirre gaur egun]; eta Jose Luis **Otaola**, eibartarra.

Makurtuta dagozenak: Regino **Biain**, Kale Zaharrekua; Sabino **Madina**, Atzeko kaleko *Txurrukanekua*; Ignazio **Olaizola**, Kale Zaharreko botika gainian bizi zan zumaixarra; Joxe Mari **Arrieta**, gero Panplonara fan zana; eta Jabier **Egaña**, Kale Barriko panaderixakua.

Hirugarren illaran jarritta: Maxima **Zelaia**, Zañartuko Upaingua; Katalina **Arrazola**, Madalenako Antuenekua; Josefita **Medrano**, beterinariuaren alabia, Bidebarrietakua; Sara **Aranburu**, kontzejuko sekretariuaren alabia, Kale Zaharrekua; Begoña **Aranburu**, mondragnetarra; Pilar **Arrue**, Arantzazu kalekua; Lola **González**, eibartarra [?]; Genoveva **Zelaia**, Zañartuko Upaingua; Maria **Alzelaia**; Justa **Ugalde**, Kale Zaharrekua; Fe Esperanza **Caridad Etxarri**, naparra; eta Maria Luisa **Arrue**, Arantzazu kalekua.

Laugarren illaran zutik: Joxe **Ugarte**, Kale Barrikua; Jesus **Cristóbal Bustillo**, eibartarra; [?] **Murgizur**, eibartarra; Migel Anjel **Azkunaga**, Kale Zaharrekua; Victoria **Medrano**, beterinariuaren alabia, Bidebarrietakua; Kasilda **Zufiria**, Bakardadeko Ama kalekua; Dolores **Mugarza**, Kale Barrikua; Elbira **Atxa**, Kale Barrikua; Roke **Mendizabal**, Kale Barrikua; eta Xanti **Ugarte**, Zubillagako Olakua.

Goixeneko illaran zutik: [?] **Romero**, frantseseko irakasiaren semia; Felix **Igartua**, Kale Zaharrekua; Eduardo **Korkostegi**, Kale Barrikua; Txomin **Astiazaran**, *Txaketuena*; Jabier **Gereka**, Kale Zaharrekua; Ignazio **Enparanza**, Atzeko kalekua; Anjel **Aranburu**, kontzejuko sekretariuaren semia, Kale Zaharrekua; eta X. X.

J. E.
Argazkixa Joxe Ugarteren bittartez heldu xaku. Argibidiak, berriz, Joxek berak, Jabier, Alis eta Mari Sol Gerekek, Pilar Barrenak eta Mari Karmen Elorzak eskuratu doskue. Milla esker danon!